

Atzo, uztailaren 14ean, Haurreskolak Partzuergoko gerente eta pertsonal buruarekin bilera izan genuen (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saileko inor ez zen etorri lanpetuta daudenaren aitzakian). Gai desberdinei buruz hitz egin genuen.

Hasteko, esan beharra dago, gaur egungo ordezkapenak emateko sistema behin eta berriz salatu ostean (egon diren akatsak eta ordezkatu gabe gelditu diren lan kontratuak asko izan direlako), azkenean, **ORDEZKAGUNEA** martxan jartzeko pausuak ematen hasi direla. 2023ko udaberrirako aurreikusten da erabilgarri egotea, horren aurretik ordea, ordezkoen araudia berrikusi eta negoziatu behar dugu.

**Zuzendari Pedagogikoa** hautatzearen inguruko prozesuaz esan genezake 39 pertsona aurkeztu direla orotara (18 Haurreskolak Partzuergoko langileak dira). Gaur egun 5 pertsona daude azken fasean eta uztaila amaiera baino lehenago jakingo dugu nor izan den hautatua, irailaren 1ean lanean hasiko delarik.

**Irailak 1era begirako desplazamenduei** dagokienean, ondorengo taulan duzue egutegia:

UZTAILA						
Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18 DESPLAZAMEN DUEN DEIALDIA ARGITARATU	19 Ukoak eta borondatezko eskaerak	20	21 Hautagien Behin behineko zerrenda	22 Behin behineko zerrendari erreklamazio eguna	23	24
25	26 Behin betiko zerrendak	27 DESPLAZAMEN DUEN ESLEIPENAK	28	29	30	31

Bertan ikusten duzuen bezala **uztailaren 18an argitaratuko da deialdia**, beraz adi egon behar da, izan ere oso egun gutxitan burutuko da guztia. Azken bi ikasturtetan bezala **online** egingo da prozesu guztia.

Gogoratu, **uztailaren 19an borondatez mugitzeko eskaerak** egiteko edo eta **indarrean dauden ordezkapen kontratuei uko egiteko aukera** dagoela. Kontratuari uko egin ezker abuztuaren 31ean amaituko litzateke kontratua (ordezkapena lehenago amaitzen ez bada behintzat). Borondatez kontratua amaitu ezker ezin da langabezia eskatu, adi horrekin.

Beste behin ere desplazamenduekin ez geundela ados salatu genuen, izan ere, urtero hezitzaileak pairatzen duten egoera hau onartezina da.

Atzo konfirmatu ziguten **kontingentzia planak** ez daudela indarrean haurreskoletan eta datorren ikasturteko **egutegia** ere aurreko ikasturteetan bezala arautuko dela.

Gogoratu, baremazioen inguruko gorako helegiteak aurkezteko epea uztailaren 20rarte dagoela irekita. Hauen emaitzak Zuzendaritza Batzordea bildu ostean argitaratuko dira; uztailaren bukaeran edota irailaren hasieran.

Bukatzeko jakin, 2022-2023 ikasturtean prozesu desberdin asko eramango direla aurrera Haurreskolak Partzuergoan, horregatik **lehenbailehen negoziatzen hastea eskatzen jarraituko dugu, langileok merezi ditugun lan baldintzak exijituz eta borrokatuz.**

